

2025 irakasle oposizioak		
Kidegoa edo lanpostua:	Espezialitatea:	Hizkuntza:
Bigarren Hezkuntza	Filosofia	Euskara
PROBA PRAKTIKOA		

- 1) Jarraian ematen den testu filosofikoan oinarrituta, hurrengo ariketak egin. (9 puntu orotara)
 - a) Testuaren **ideia nagusia**(k) eman. (Puntu 1)
 - b) Aukeratu testutik Filosofiaren Historian esanguratsuak izan diren **bi termino edo adierazpen**, testuaren egilearen edo testuan aipatzen den autore baten testuinguruan **kokatu** eta **definitu**. (2 puntu)
 - c) **Disertazioa** (4 puntu): Idatzi disertazio bat testuak planteatzen dituen arazo filosofikoetako bat landuz. Zure tesia defendatzeko argudio nagusiak filosofo edo korronte filosofikoen ideiatan oinarritu behar dira. Disertazioa egiterakoan erabiltzen den filosofo edo korronte filosofiko bat behintzat testuan aipaturikoa izan beharko da.
 - d) **Aplikazio didaktikoa** (2 puntu): Egin testuak jorratzen duen gaia ikasgelan lantzeko proposamen didaktiko bat.

Testua euskaraz:

Zer “egiten” dugu pentsatu baino egiten ez dugunean? Non gaude, normalean gure hurkoek inguraturik gaudela, geure buruarekin baino ez gaudenean? Galdera horiek planteatzeak baditu, jakina, bere zailtasunak. Lehen begiratuan, «filosofia» edo «metafisika» deitzen zitzaaien horren esparrukoak dirudite, bi termino eta bi ikerketa-eremu, gaur egun —badakigunez— zoritxarrean erori direnak. Kritika positibista edo neopositivistak izango balira soilik, agian ez genuke horretaz arduratu beharrik izango. Carnap-en baieztapenak, metafisika poesiatzat hartu behar dela dioenak, kontra egiten die metafisikarien asmoei; baina hauek, Carnap-en balorazioa bera bezala, poesiaren gutxiespen batean oinarrituak egon daitezke. Heideggerrek —Carnapek bere kritikaren jomugatzat hautatu zuenak— filosofia eta poesiaren arteko harreman estua berretsiz erantzun zuen; ez ziren gauza bera, baina iturri beretik sortuak ziren biak: pentsamendutik. Poesia “hutsa” idazteaz oraingoz inork salatu ez duen Aristoteles bera ere iritzi berekoa zen: poesia eta filosofia nolabait batera doaz. Bestalde, Wittgensteinen aforismo ospetsua, “Hitz egin ezin daitekeenaz isildu egin behar da”, kontrako zentzuan argudiatzen duena, hitzez hitz hartuko balitz, sentipenezko esperientziatik at dagoenari ez ezik, sentipenaren objektu gehienei ere aplika dakieke. Ikusten, entzuten edo ukitzen dugun ezer ezin da behar bezala deskribatu zentzumenei emandakoa berdintzen duten hitzen bidez. Hegel zuzen zegoen “gauza sentikorra [...] hizkuntzaren bidez eskurazina” dela azpimarratzean.

Arendt, Hannah. *Espirituaren bizitza*. itzulpena gaztelaniatik euskarara

Testua gazteleraz:

¿Qué «hacemos» cuando no hacemos nada sino pensar? ¿Dónde estamos cuando, normalmente rodeados por nuestros semejantes, no estamos con nadie más que con nosotros mismos? Suscitar estas cuestiones tiene, evidentemente, sus dificultades. A primera vista parecen pertenecer a lo que solía llamarse «filosofía» o «metafísica», dos términos y dos ámbitos de investigación que, como sabemos, han caído en desgracia. Si se tratara simplemente de las críticas positivistas o neopositivistas, quizá no necesitaríamos ni preocuparnos de ello. La afirmación de Carnap de que la metafísica debe ser considerada como poesía contradice las pretensiones de los metafísicos; pero éstas, como la valoración de Carnap, pueden

estar basadas en una subestimación de la poesía. Heidegger, a quien Carnap eligió como blanco de su ataque, replicó afirmando la estrecha relación entre la filosofía y la poesía; no eran idénticas, pero emanaban de la misma fuente: el pensamiento. Y de la misma opinión era Aristóteles, a quien de momento nadie ha acusado de escribir «mera» poesía: poesía y filosofía van en cierto modo juntas. Por otra parte, el célebre aforismo de Wittgenstein, «De lo que no se puede hablar hay que callar», que argumenta en el sentido contrario, podría, si se tomase al pie de la letra, aplicarse no sólo a lo que escapa a la experiencia sensible, sino también a la mayoría de los objetos de la sensación. Nada de lo que vemos, oímos o tocamos puede ser adecuadamente descrito con palabras que igualen lo que es dado a los sentidos. Hegel estaba en lo cierto al subrayar que «el esto sensible [...] es inasequible al lenguaje».

Arendt, Hannah. *La vida del espíritu*. Trad. Carmen Corral Santos y Josefina Araceli Birulés Bertran. Barcelona: Ediciones Paidós, 2002.

- 2) **Ariketa logikoa** (puntu 1). Ondorengo arrazoibidearen zuzentasunaz ebatzi: formalizatu argudio osoa logika proposizionalean, eta erakutsi ondorioa premisetatik ondorioztatzen dela logikoki dedukzio bidez.

Pertsonak behar bezala galdekatzen badira, orduan, bizitzan zehar jaso ez duten ezagutza erakusten dute. Baina ezingo lukete hori egin ez balute halako ezagutzarik aurreko bizitza batean jaso. Halako ezagutza aurreko bizitza batean jaso izan balute, horrek frogatuko luke arimak gorputzetik independente iraun dezakeela. Horrela, pertsonak behar bezala galdekatzen badira, probatu daiteke arimak gorputzetik independente iraun dezakeela. (Platon, *Fredo*)